




Paco Larrañaga errugabea dela aitortu du orain polizia ohi batek

ALEGIA ▶ Akusazioaren lekuko nagusiak Larrañagak hilketetan parte hartu izana asmatu zuela dio Filipinetako polizia ohiak

DAMUTURIK ▶ «Gau batzutan ezin nau loak hartu, kontzientziak ez didalako uzten»; parte hartu zuen ikerketan ▶ 4



Denboraren iragatearen kezka, olerkiz olerki, idazlearen heldutasunean

TOLOSA ▶ *Denbora aleak* bere bosgarren olerki bilduma aurkeztu du Karlos Linazasoro idazleak. «Galdere asko eta erantzun gutxi» topatu ditu tolosarrak. «Sekula inori esan ezin izango nizkiokeen nire sentimenduen gainean jardun dut», dio. N. LATABURU ▶ 2

TOLOSA ▶

Alacanteko Fira de Tots Sants irabazi du Hodeiertzek

Abesbatza lehiaketako saria ekarri dute etxera; «gustura» daude ▶ 3

IBARRA ▶

Bihar ekingo diote Kultur Asteari Gaztetxean, musikarekin

Gaztetxearen 12. urteurrena ospatuko dute aurten; egitarau zabala, aukeran ▶ 6

elkar-ekin gaude

Xalem

Ramos

Xalbador

Bilintx

elkar
elkar ezagutzen dugulako

Arriaga

Etxepare

Herrriak

Mattin

Urretxindorra



www.elkar.com

KULTURA ▶

Denboraren iragatea, olerkiz olerki

Atzo aurkeztu zuen Karlos Linazasoro idazleak 'Denbora aleak' bere bosgarren olerki liburua; bere bizitzan lortu duen «heldutasunaren adierazlea» dela dio

NOELIA LATABURU

Denboraren iragatearen kezka, maitasuna, heriotza, lagunen beharra, mina... kezka unibertsalak, orohar, transmititu nahi izan ditu Karlos Linazasoro idazle tolosarrak bere azken olerki bilduman. *Denbora aleak* du izenburu bere bosgarren olerki liburua, eta atzo egin zuen aurkezpena jendaurrean, Donostian. Etengabe botatako euriak ez zuen idazlearen poza zapuztu, eta hark adierazi zuenaren arabera, «liburu hau argitaratzea pozgarria da oso, poesia nolabait bizitzaren esentzia baita». Hiru urteetan zehar idatzitako olerkiak dira, guztira 42. «Gaia, estiloa, edukia eta forma asko zaindu ditut, guztiak baitute garrantzia».

Pamiela argitaletxeak argitaratu du liburu eta ordezkariak aitortu zuten, «biluzien bidaia egiteko generoa» da poesia, eta horretan «Linazasoro euskal literaturan lehen mailan kokatzen da». Halaber, genero hau irakurri ahal izatea eta haren parte izatea «pozgarria eta interesgarria» dela aitortu zuten. Linazasorok, bere aldetik, hitz beroak izan zituen poesia-erantzak. «Erlijio hutsa da, eta olerki bakoitza, berriz, errezo modukoa». Poetak «salbame-na bilatzen du» eta bere gogoa ere «salbamen hori aurkitzea» dela aitortu zuen. Ez dago, beraz, «poeta bat baino erlijioso handiagorik». Eta liburu bat erosterako garaian gure buruari egiten diogun galdera: zeri buruz hitz egiten duen li-



Karlos Linazasoro *Denbora aleak* liburuaren egilea. NOELIA LATABURU

buruak? Bada, *Denbora aleak* egilearen heldutasunaren adierazlea da. «Iruditzen zait inora joan gabe dagoeneko bueltan natorrela», adierazi zuen berak. Eta halaxe islatu nahi izan du liburuan. Denborari buruzko hausnarketa da, hortaz. «Sekula inori esan ezin izango nizkiokkeen nire sentimenduen gainean jardun dut olerki hauetan, azken batean

poesiak ni idatzi nau eta, eta ez alderantziz». Liburuak oreka bat baduela ere azaldu zuen egileak; batetik, poza dago eta, bestetik, mina, oinazea. Orokorrean olerkiek batasun handia dute, izan ere, «bakarra bailiztan irakur daitezke elkarren jarraian». Olerki guztiak gai komunak jorratzen dituzte, idazlearen barneko dudak, kezkek, minak... azaleratzea, hain zu-

zen ere. Liburuan «ihes edota hegan egiteko nire gogoa agerian geratzen da behin eta berriro, batzuetan denok desageritzeko izaten dugun grinan». Bestalde, galdera asko egiten ditu olerki hauetan, bere buruan «buelatka» dituen, baina erantzun gutxi ematen ditu. «Nigan galderak egitea ohikoa da, azkenean horretarako da baliagarri poesia».

Ibilbide luzea literaturan

Euskal literaturan eskarmentu handiko gizona dugu Karlos Linazasoro tolosarra. Euskal Filologia ikasi zuen, eta Tolosako udal liburutegia da lanbidez. Haur eta gazte literatura ugari idatzi du. Helduentzat, berriz, bost ipuin liburu, eleberri labur bat, antzerki bat, eta apunte liburu bat —*Isiltasunaren adabakiak*—, *Denbora aleak* bere bosgarren olerki bilduma da.

Azken honekin, ordea, garai berri bati eman nahi izan dio hasiera Linazasorok. «Olerki liburu batean erradikala izateko unea heldu zaidala deritzot», adierazi du, harentzat «literatura askatasun eremu bakarretakoa» delako eta horri «irimo eta tinko» eutsi behar zaiolako. Hemendik aurrera «inorrek tranpak egiterik» ez duela jasango ere aitortu du tolosarrak. «Nik atzematzen dut liburu bat noiz den azalekoa eta hori ez irakurtzeko eskubi-dea behintzat badudanez, nire mendekua hori izango da, ez irakurtzea».

KARLOS LINAZASORO IDAZLEA


«Sekula inori esan ezin izango nizkiokkeen nire sentimenduen gainean jardun dut olerki liburu honetan»

«Liburuan ihes egiteko nire gogoa agerian geratzen da; galdera asko egin eta erantzun gutxi topatu ditut»

'DENBORA ALEAK' ▶

Linazasoro tolosarrak kaleratzen duen bosgarren poema bilduma da *Denbora aleak*. Hona hemen zenbait datu:

Izenburua. *Denbora aleak*.
Egilea. Karlos Linazasoro.
Argitaletxea. Pamiela.
Edukia. Liburuak 58 orrialde ditu, 42 poemek osatua.



Liburuaren azala. HITZA

hitza lagunena
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

TOLOSA ▶ MUSIKA

Alacanteko garaipenarekin «gustura» Hodeietz abesbatza

Alacanteko Fira de Tots Sants abesbatza lehiaketa irabazi berri du Hodeietz-ek; Enrique Azurza zuzendari tolosarra «oso pozik» agertu da egindakoarekin

MARTA SAN SEBASTIAN

Alacantetik (Herrialde Katalanak) saria ekarri dute Tolosako Hodeietz abesbatzako kideak, eta sari handia, gainera. Izan ere, Alacanteko Cocentaina herrian ospatzen den Fira de Tots abesbatza lehiaketan irabazle izan dira tolosarrak. Beste bi abesbatzekin lehiatu ziren, eta «emanaldi ona» eskaini ondoren, saria irabazteko aukerak bazituzten.

Cocentainako Cor de Cambra Discantus abesbatzak urtero antolatzen duen lehiaketa da aipatutakoa. Hain zuzen ere, XXV edizioa zen aurtengoa, urtemuga garrantzitsua, dudarik gabe. Bertan, tolosarrak izan ziren jaun eta jabe. Lehen aukeraketa Espainiako eta Euskal Herriko hainbat abesbatzek parte hartu zuten, eta Tolosakoak aukeraketa hori gainditu zuen. Hiru koru sailkatu ziren: Madrilgo Siglo XXI ahots taldea, Algemesiko Cor Cabanilles abesbatza eta Tolosako Hodeietz abesbatza.

Azkenen, eta saio polita eskaini ondoren, Tolosako korua izan zen garaile. Arrakasta handia izan zuen, gainera, eta jendetza bildu zen Cocentainako El Teular kulturgunera. 25,49 puntu lortu zituzten tolosarrek, eta 3.000 euroko saria eskuratu zuten. Bigarren saria, aldiz, Madrilera joan zen; izan ere, Siglo XXI ahots taldeak 24,10 puntu lortu zituen, eta 1.800 euroko saria eraman zuen etxera. Hirugarren postuan, azkenik, Algemesiko Cor Cabanilles abesbatza geratu zen, 18,11 punturekin. Azken hauek 1.200 euroko saria izan zuten.



Tolosako Hodeietz abesbatzak emanaldi bikaina eskaini zuen Alacanten. HITZA

Aurrera begira

3.000 euroko saria irabazteaz gain, beste sari garrantzitsu baten jabe ere egin ziren tolosarrak Alacanten. 2008an Cocentainan bertan egingo den Premi Firacor-en edizio berezian parte hartzeko aukera ere irabazi dute. Lehiaketa hau hiru urtez behin egiten dute, eta bigarrena izango da aurtengoa. Oraindik urrun badago ere, Hodeietz abesbatzak 2007ko eta 2008ko irabazleekin lehiatu beharko dute 2008an.

Honez gain, beste hainbat egitasmo ere badituzte Hodeietz taldekoek. Datorren urtean, Aste Santu aldera, Indiarra joateko dira emanaldiak eskaintzera eta herrialdea eza-gutzera. Ederki merezitako saria.

Lan askoren fruitua

Talde guztia «oso gustura» dagoela dio Enrique Azurzak, Hodeietz abesbatzako zuzendariak. Espainian egiten den lehiaketa garrantzitsuenetako bat da Cocentainakoa, eta irabazteak garrantzi handia du Tolosako koruarentzat. «Emanaldi ona egin genuen, eta bagenekien irabazteko aukera handiak genituela», adierazi dio Azurzak berak HITZARI. Hala ere, euren lehen helburua «ahal genuen ondoen abestea» zela dio tolosarrak. Kantua gustuko dutelako dihardute lanean Hodeietz abesbatzako kideek, baina lan askoren fruitua ere bada sari hau. «Oraingoz pixka bat lasaitu egingo gara, eta denbo-



Enrique Azurza. LEIRE MONTES

raldi batez ez dut uste lehiaketa gehiagotan aurkeztuko garrenik», azaldu du zuzendari tolosarrak. ◀

ALTZO ▶

Ardo dastatze ikastaroa abian da dagoeneko

Hilaren 30a baino lehen eman behar da izena eta zortzi asteko iraupena izango du

M. SAN SEBASTIAN

Ardoaren sekretuak asko omen dira, eta dastatzen ikastea ere garrantzitsua dela diote benetan gozatzen. Hortaz ohartuta, Altzoko Udalak ardoa dastatzen ikasteko tailerra antolatu du herritarrentzat.

Ikastaroaren hasiera 2006ko urtarrilean izango bada ere, izen-ematea hilaren 30a baino lehen egitea beharrezkoa da. Ikastaro hau Cebanc-Cdea profesionalentzako formazioaz arduratzen den eskolaren bidez eskainiko dute. Zortzi asteko iraupena izango du, alegia, 20 ordukoa izango da, astean bi ordu eta erdiko saioak. Udaletik ohartarazi dutenez, «gutxienez 10 lagunek elkartu behar dute ikastaroa burutzeko». Eguna eta orduetgia zehazteke daude.

Ikastaroak hainbat helburu ditu. Alde batetik, ardo dastatzea bakoitzak era autonomoan egitea lortu nahi dute, eta ardo zuri, gorri eta beltzak bere mota guztietan ezberdintzea. Bestetik, ardo eta cava moten prestatze eta kontserbatze prozesua eza-gutzea. Gainera, ardoak plater ezberdinekin nahasten ere ikasiko dute ikastaroan izena ematen duten guztiek.

Honez gain, Alegian antolatu duten sormenezko euskal sukaldaritzako tailerlean taldea osatzen ez bada, Altzoko herritarrek ere parte hartzeko aukera izango dute. Beraz, lehenbailehen izena ematea gomendatzen dute.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Paco Larrañaga errugabea dela aitortu du orain Filipinetako polizia ohi batek

Akusazioaren lekuko nagusiak Larrañagak hilketetan parte hartu izana asmatu zuela dio; «gau batzutan ezin nau loak hartu, kontzientziak ez didalako uzten»

IRATXE ETXEBESTE

1997. urtean Cebun (Filipinak) erail zituzten bi ahizpen ikerketan parte hartu zuen polizia ohi batek heriotz zigorrera kondenatuta dauden hiru lagun —horien artean Paco Larrañaga— errugabeak direla aitortu du orain. «Gau batzutan ezin izaten nau loak hartu, kontzientziak ez didalako uzten», zioen Roy Codiñerak astelehenean Filipinetako hedabideen aurrean.

Cebuko Poliziaren Ikerketa Kriminalerako Dibisioko kide ohiaren arabera, akusazioaren lekuko nagusiak, Davidson *Ti-soy* Rusiak, «asmatu» egin zuen hilketa hartan James Andrew eta James Anthony Uy anaiek eta Paco Larrañagak parte hartu zutela. Haren esanetan, «beste zazpi akusatuak salatuz» lortu zuen Rusiak bere askatasuna. Codiñera bera izan zen, antza, babestutako lekukoaren aitortpen estrajudiziala prestatu zuena.

Polizi ohiak dio «ezustean» ikusi zuela Paco Larrañagaren eta bi anaien izenak gehitu zizutuzela hasierako aitortpenean: «Ez dakit zer egin zioten Rusiari eta zergatik esan zuen hori, ikerketan zehar ez baitziren hiru izen horiek azaldu».

Codiñeraren adierazpenek bira berri bat ekar dezakete Larrañagaren kasuan, joan den uztailen Filipinetako Auzitegi Gorenak akusatuak heriotz zigorrera kondenatzea berretsi, eta bide legal guztiak itxi ostean.

Larrañagaren ama Margot Gonzalezek esandakoaren arabera, polizia ohiaren aitortpenak kasua berriro irekitzeko itxaropena pizten du. Paco Larrañagaren defentsak beti adierazi du Rusia lekukoaren bertsioak sinesgarritasunik ez duela, alde batetik, akusatu nagusia zelako —onartu egin zuen hilketetan parte hartu izana—, eta, bestetik, epaiketan egin zuen agerraldia kontraesanez beteta zegoelako. Gainera, Larrañagaren defentsak sarritan ohartarazi du Rusia beste kasu batzuetan ere kondenatua izan zela aurretik.

«Dakidanari buruz hitz egiteko deitu ahal zidaten epaiketa hasi zenean, baina ez zuten horrelakorik egin», zioen Codiñerak. «Bekatu egin dut orain arte hitzik ez egiteagatik. Arriskuan jarri dut nire bizitza eta nire ohorea, baina Jainkoarekin elkartu aurretik nire ohorea defendituko dut nire izena garbitzeko». Burmuineko isuria izan zuenetik gurgildun aulkian da polizia ohi. *Cebu Daily News* egunkarian onartu du aste honetan Paco Larrañagaren errugabetasuna.



Inolako kezkarik gabeko etorkizuna eduki ohi dugu denok buruan; benetan gustatzen zaigun huraxe eginez igaro ahal izango dugun geroa. Hori lortzeko, baina, gaur bertan hasi behar prestaketa-lanetan. Horregatik, **Kutxaren Aurreikuspen-Plan Bermatu** berria aurkeztu nahi dizugu, gure gainerako Planekin batera, hori guztia eskuratzeko **segurtasuna eta errentagarritasuna** emango dizkizuna, alegia.

Kutxa Aurreikuspen-Planak Kutxa Bi BGA Era daude atxikita.

**KUTXA
AURREIKUSPEN-PLANAK**
Bihar zer egin behar duzu?

ZIZURKIL ▶

Agenda 21eko herri batzarra gaur Atxulondon

Zizurkilgo Agenda 21eko lehenengo herri batzarra egingo dute gaur, 19:30ean, Atxulondo kultur etxean. Bileraren helburua herritarren artean adostutako ekintzak jasoko dituen herriko plan bat egitea da. «Guretzat eta gure ondoren datozenentzat herri txukun eta bizi bat lortzeko», azaldu dute Udaletik bidalitako oharrean, eta gaineratu herri batzarra herritar guztiei irekita dagoela. Bestalde, Agenda 21eko egitasmoaren berri izateko 943 69 25 36 telefonora dei daiteke, 10:00etatik 12:00etara, astelehenera.

ZIZURKIL ▶

Diru laguntzak jasotzeko fakturen aurkezpena

Udalak bidalitako ohar batean zehazten denez, aisialdia, kirola, kultura, hezkuntza gaztetxoak eta euskara inguruan ekintzak finantzatzeko dirua jaso duten elkarteek fakturak aurkeztu behar dituzte falta den %25a jasotzeko. Diru laguntza hauen ordenatzak zehazten duenaren arabera, beraz, abenduaren 31 baino lehen aurkeztu behar dituzte fakturak elkarteek, falta zaien zatia jaso ahal izateko.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

Gazteenak indartsu datoz

Danena-Olaederrako pultsularien emaitza bikainak Espainiako Txapelketan

IMANOL GARCIA

Danena-Olaederra halterofilia taldeko pultsulari gazteenek emaitza bikainak lortu dituzte Sevillan jokatu berri den Espainiako 15 urte azpiko Txapelketan. Igor Sasiain, bere mailan (56 kilokoan) urrezko domina lortzeaz gain, banakako sailkapen orokorrean —altzatutako kiloak eta pultsulariaren pisua hartzen dira kontuan— Espainiako txapelduna izan da. Jon Ander Iriartek urrezko domina lortu du eta Mikel Quintanak zilarrezkoa 77 kiloko mailan. Azkenik, Iker Hernandezek zilarrezkoa lortu du 45 kiloko mailan. Joaneke bidaia luzea egin bazitzaie ere, Sevillatik bueltan egindakoa gustura egin zuten, lortutako emaitzak gogotan.

Guztiek bere pisua baino gehiago altxatzen dute: Jon Ander Iriartek (14 urte) arrankadan 92,5 kilo eta bi denboradatan 112 kilo altxatzen ditu; Mikel Quintanak (15 urte) arrankadan 85 kilo eta bi denboradatan 105 kilo; Igor Sasiainek (14 urte) arrankadan 82 kilo eta bi denboradatan 95 kilo; Iker Hernandezek (13 urte) arrankadan 45 kilo eta bi denboradatan 55 kilo.

Anaiak edo lagun batek animatuta hasi ziren laurak eta, gustua hartu diote kirolari.



Iker Hernandez, Mikel Quintana, Jon Ander Iriarte eta Igor Sasiain. I. GARCIA

Asko eskatzen du fisikoki halterofiliak, baina baita buruaren aldetik ere, marka hobetzen joatea baita helburua. «Asko jaten du burua gero eta gehiago altxatzeak», diote pultsulari gazteek. «baina entrenatzen jarraitzea besterik ez dago». Bakarkako kirola da halterofilia, baina talde baten baitan egotea asko laguntzen die eguneroko entrenamenduan, «beste la aspertu egingo ginateteke». Txapelketetan asko animatzen dute elkar.

Halterofilia ez da oso kirol ezaguna. Danena-Olaederrako pultsulariek lagunei esaten diete taldean sartzeko. «Askori

ez zaio gustatzen. Entrenamendu lasaia egin nahi izaten dute, asko saiatu gabe», azaldu dute. «Batzuek diote txikiagoa gelditzen zarela, baina hori ez da egia». Beste edozein kirolek bezala, gorputzean eragina du halterofiliak. Batez ere hankak, gerria eta bizkarra asko indartzen dira. Batis Kortajarena entrenatzaileak azaltzen duenez, «min gutxienez hartzen den kirolenetakoa da, Foru Aldundiak egiten duen txostenaren arabera. Planifikazioari oso garrantzi handia ematen zaio. Ezin dute beraiek nahi dutena egin, baizik eta planifikazioa jarraitu behar izaten dute: zein

pisu, zenbat aldiz...». Kortajarenak gonbita egiten die gurasoei Olaederra kiroldegira joateko egiten duten lana ikustera. «Jendeak jakin gabe hitz egiten du halterofiliari buruz, kirol hau txarra dela esanez. Kirola ez da txarra, kirola egiten den modua da kontuan hartu beharreekoa».

Bestalde, aipatzekoa da aurtien Danena-Olaederrako hiru pultsularik erredimentu handiko zentroetara egin dutela jautzia. Ekaitz Kortajarena eta Teddy Martinez Bartzelonako CARera joan dira, eta Jon Sasiain Madrileko Blume zentroan dago.

'EGUNKARIA AUZIA' ▶



Epaietarik ez egiteko eskatu dute

Erredakzioa ▶ Etzi Egunkaria auzia-ko auzisaioa egingo dute Madril, Espainiako Auzitegi Nazionalan. Jende multzo handiak epaietarik ez egiteko eta auzia artxibatzeko eskatu zuen atzo Martin Ugalde Kultur Parkean egindako elkarretaratzean. Auzipetuetako batzuk pankarta

eusten izan ziren, tartean Marxelo Otamendi tolosarra. Egunkariaren Alde elkarteak deituta, EAJ, Batasuna, EA, Aralar, Udaltzuzte, Udaltzuzte, ELA, LAB, Hiru, CCOO, Amnistiaren Aldeko Mugimendua, AEK eta Kontseiluako ordezkariak izan ziren elkarretaratzean, besteak beste. BERRIA



Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

GANDIAGA TOPAGUNEA,
ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

“Manuel Lasarte:
bizitza eta sorkuntza”
ERAKUSKETA

HONAKO EGUNETAN ZABALIK:
Azaroak 19, 20, 26, 27
Abenduak 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11

ORDUTEGIA:
11etatik 14:00etara
eta 15:00etatik 18:00etara



IBARRA ▶ KULTURA

Bihar emango diote hasiera Gaztetxearen Kultur Asteari

Aurten 12. urteurrena ospatuko du Ibarako Gaztetxeak; kontzertuak, bertso afaria eta hitzaldiak izango dira

IÑIGO TERRADILLOS

Bihar hasi eta datorren osteguna bitarte Kultur Astea antolatu du Ibarako Gaztetxeak. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun horietarako: kontzertuak, bertso afaria, hitzaldiak...

Hiru kontzertuekin emango diote hasiera aurtengo Kultur Asteari. Eta Mundurat Sarearen sorreraren laugarren urteurrenako kontzertuen baitan kokatu behar dira Mendeku Itxua usurbildarrek, Khous berriozardarrek eta Akatu iruindarrek bihar eskainiko dituztenak. Gune alternatibo askea eratzeko asmotan sortu zen Mundurat duela urte batzuk, «ez enpresari ez bezerorik gabe, non Interneten erabilera ez legoke ordaindutako kopurari mugatuta, non jendeak bere iritzia emateko aukera duen...». Berrituta eta indartuta bueltatu da Mundurat, «proiektu berriekin, itxura berriarekin eta lanerako inoiz baino gogo gehiagorekin, baina sortu zeneko helburu berdinarekin: talde eta kolektibo alternatiboentzako doako gune askea eskaintzea». Hain zuzen ere, kontzertuekin ateratako dirua proiektua hobetzeko bideratuko dute.



Bihar ekingo diote Kultur Asteari. WWW.IBARRAKOGAZTETXEA.NET

EGITARAUA ▶

BIHAR 22:30. Mendeku itxua (Usurbil), Akatu (Iruñea) eta Khous (Berriozar) taldeek kontzertua eskainiko dute Mundurat sarearen aldeko jaietan. Kontzertuekin ateratako dirua proiektua hobetzeko erabiliko dute.

ETZI 21:00. Jexux Mari Irazu eta Mañukorta bertsoari batera bertso afaria izango da. Menua: tortilla, txuleta eta postrea. Txartelak aurrez erosi beharko dira Atari tabernan.

ASTEARTEA, HILAREN 22A 19:00. Hirusta egitasmoaren eskutik, 14-21 urte bitarteko gazteen kezkei, nahiei eta zailtasunei erantzuteko modu berriak ikasteko hitzaldia izango da.

OSTEGUNA, HILAREN 24A 22:00. Mingain haragia. Emakume ipuinak emanaldia Joxe Mari Carrere ipuin kontalariaren eskutik. Munduko kultura ezberdinetako istoriekin osatutako ipuin ikuskaria izango da, non emakumeak diren protagonista.

Bestalde, etzi «umorea izango da nagusi» Gaztetxean, bertso afaria izango baita; sarreak aurrez erosi beharko dira Atari tabernan. Asteartean, berriz, Gizakia Fundazioak sortu duen laguntzarako prebentzio-egitasmoa den 14-21 urte bitartekoen gazteen kezken inguruko hitzaldia izango da, eta datorren ostegunean, Kultur Astearekin amaitzeko, emakumeak protagonista diren ipuin ikuskaria.

Hamabi urteko historia

Hamabi urte bete dira Ibarako Gazte Asanbladak Gaztetxea lortu zuela. Aurretik, lokal hori ikastola izan zen, eta aisialdi talde batek, dantza taldeak, hauteskudeetan bozketa gela bezala... erabili izan dute.

Lehen urte haietan Gazte Asanbladakoek «ilusio handiarekin» ekin zioten lanari, «Udalarekin (EA) arazoak izan genituen arte». 1995ean izan zituzten arazo larrienak; «Gaztetxea ez ixteko makina bat egun itxialdian igaro eta Udalarekin ordu luzeak eztabaidan igaro ondoren lortu genuen akordioa», gogoratzen dute. Harrezkero, lokal berarekin jarraitu dute, «Gazte Festak prestatuz, erreka garbituz, Kultur Astea eginaz, kontzertuak antolatuz, herri nahiz eskualde mailako kultur arloko ekitaldietan parte hartuz, Gazte Asanblada eta Gaztetxearen presentzia herrian egunero ziurtatuz eta, nola ez, herriko gazteei aisialdirako, lanerako edo zerbait gehiago ikasteko tokia eta aukera emanaz».

Bestalde, 12 urteetako historiaren errepasoa egitean preso eta errepresaliatuak aipatu gabe ezin dituela utzi azaldu du Ibarako Gazte Asanbladak.

IBARRA ▶

Almandozera irteera antolatu du Bizi-Nahi-k

Ibarako Bizi Nahi jubilatua eta pentsiodunen elkarteak irteera antolatu du Almandozera (Nafarroa) hilaren 26an. Izena eman nahi dutenek elkartera joan daitezke, 11:00etatik 13:00etara. 25 euro (bazkaria barne) ordaindu beharko dituzte.

KULTURA ▶

Santa Zeziliaren harira Loatzoren hainbat emanaldi

Hilaren 22an Santa Zezilia eguna ospatuko da, eta hori dela-eta hainbat emanaldi eskainiko ditu Loatzo musika eskolak. Hilaren 18an, 18:30ean, Alegiako Kultur Etxean eskainiko dute saioa; hilaren 19an, Iruran, Anoetan, Villabonan eta Zizurkilan kalejirak egingo dituzte 10:00etatik aurrera, eta 12:00etan, berriz, Ibarren Loatzo musika eskola osatzen duten herri guztien artean kalejira erraldoia egingo dute.


TOLOSA ▶

Idoia Sanchezen bakarrizketa bihar Iratxon

Bihar, 23:30ean, beste Gaudin bat izango da Tolosako Iratxo tabernan. Kasu honetan, Idoia Sanchezek *Yo no soy esa* bakarrizketa saioa eskainiko du.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Eskualdeko merkatariak kanpainak egiten dituzte herritarrek erosketak herritik atera gabe egin ditzaten. Non duzu ohitura erosketak egiteko? Sartu eskualdeko egunkariaren web orrian eta eman zure botoa. ▶



Orain arte jasotako emaitzak.

HEZKUNTZA ▶

Eskualdeko hainbat ikasle bilduko dira gaur Ibarren Euskal Jolasen Topaketan

09:30etik 12:30era izango da; euskal kultura jolasaren bidez lantzea du helburu ekimenak

I. TERRADILLOS

Kutxak antolatuta, Euskal Jolasen Topaketa egingo dute gaur Ibarren —eguraldi ona eginez gero plazan, bestela kiroldegian—, 09:30etik 12:30era. Bertan parte hartuko duten ikasleak Jesusen Bihotza, Las-

korain, Anoeta eta Uzturpe ikastolakoak eta Aralar eta Hirukide ikastetxeak izango dira, DBH3 mailakoak.

Topaketa hauen helburua ikasleen arteko harremana bultzatzea izaten da, beti ere, lehia tresna motibatzaile bezala erabiliz. «Euskal kultura jo-



Hankapalo frogia. I. GARCIA

lasaren bidez landuz emozioa da gutzia barneratzeko tresna egokiena», gehitu dute. Lantzen dituzten frogak loko txak jaso eta artoa aletu, hankapoteak, boloak... izaten dira.

IBARRA ▶

Fernandezen Movistar ontziak lema hautsi du

ERREDAKZIOA

Volvo Ocean Race estropadan ari da lehiatzen Xabi Fernandez ibartarra Movistar ontzian, eta badirudi ez dutela zorte gehiegirik. Lehenengo etapan matxura izan zuten eta herenegun, berriz, lema hautsi zuten. Zorte txarra dutela azaldu du ibartarrak, eta egunak aurrera egin ahala hobera egitea espero duela.

LEITZA ▶

Muslarientzat txapelketak hurrengo lau asteburuetan

J. ASTIBIA

Hurrengo lau asteburu jarraietan mus txapelketak egingen dituzte Torrean, bertatik jakinarazi dutenez.

Bihar, ostirala, hilak 18, egingen dute lehendabizikoa, 22:30etik aurrera. Muslari bikoteek bertan eman behar dute izena, jokoan haserako. Sariak honakoak: irabazleek axuria eta 4 puntu; bigarrenak, 4 txuleta eta 3 puntu; hirugarrenak, 2 basterriko oilasko eta 2 puntu; eta laugarrenak, gazta eta puntu 1; sarituek bina ardo botila ere jasoko dituzte.

Beste hainbeste egingen dute ere 25ean, abenduaren 2an eta 9an. Nabarmendu dutenez, gainera, txapelketa aldia bukatzen denean, puntu gehien pilatu dituen bikoteak 2 lagunentzat afaria irabaziko du.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
▶ **Orendain.** Medikua: 655595
▶ **Orexa.** Medikua: 682228
▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
▶ San Esteban: 006800
▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amaroako dispen.: 672637
▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536
▶ **Gurutze Gorria:** 674888
▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe Tolosa: 652889
▶ Donostiako autobusa: 361740
▶ Tolosaldea bus: 650621
▶ Leitza autobus.: 948 221015
▶ **Taxia:** 670420
▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820
▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858
▶ **Tolargi:** 650016
▶ **Iurramendi egoitza:** 670325
▶ **Tolosa gasa:** 675320

LEITZA ▶ KULTURA

JAIONE ASTIBIA

Bihar, ostirala, 20:00etan, Leitzako liburutegian, liburu baten aurkezpena egingen dute, leitzar batek egina dena, Leitzako euskalkia ardatz duena: *Aio Leitze!* du izenburu, eta Mikel Olanok da bere egilea.

Liburuzainaren aurkezpenaren ondoren, egileak berak aurkeztuko du liburua eta berak egindako lanaren nondik norakoak, ezaugarriak... azalduko ditu, Leitzaldeko Euskara Zerbitzuetik igorri duten prentsa oharrak dionez, hain zuzen, liburu honen argitalpenean sustatzaile izan denak.

«Leitzako euskararen hiztegia da *Aio Leitze!*», dio oharra: «Leitzako euskalkiari buruzko hiztegi etnografikoa», zehaztuz. Izan ere, egileak ez du hitzen bilduma soila egin, baizik eta hiztegi honetan jaso duen material guztia «hiru ikasgairen inguruan» bildu duela nabarmendu dute: «Etnografiaren inguruan, dialektologiaren inguruan eta corpus linguistikorearen inguruan» egindako azterketa eta lan mardula dela azpimarratuz.

Alderdi etnografikoan, «Leitzako bizimodu tradizionalaren zertzelada ugari» bildu ditu egileak, hizkeraren azterketa egiten ari zen bitartean; horregatik da ere hiztegi etnografikoa.

Dialektologiari erreparatu, alde batetik «Leitzako euskararen bereizgarriak» jaso ditu

‘Aio Leitze!’: bertako hitzak altxatu eta eskaintzera**Bihar Mikel Olanok egindako Leitzako euskararen hiztegia aurkeztuko dute**Hauxe da Mikel Olanoren *Aio Leitze!*-ren azala. EUSKARA ZERBITZUA

Olanok, euskarari dagokionez, Leitzan bakarria erabili izan diren eta oraindik erabiltzen diren hitzak, esaerak... jaso eta zerrendatu ditu; eta, bestalde, baita «inguruko hizkerekin dituen kideetasunak» bilatu eta agertu ere; horregatik da ere Leitzako euskalkiaren hiztegia.

Eta, gainera, jaso dituen hitz, esamolde, adiera guztiak eta bakoitza bere («testuinguru naturalean») kokatu ditu, «Leitzako ahozko eta idatzizko literaturaren azterketa xehea» egitearen ondorioz. Kanpo lan handia egin du Olanok, han eta hemen galdetuz, harekin eta honekin hitz eginez, hara eta hona joanez... Horrela, hiztegiaren ageri den hitz bakoitzari dagokion esanahiaz gain, noiz eta nola erabiltzen zen edo den ere jakiteko modua egokitu du, kasu askotan argazkiak eta guzti erantsiz. Horregatik da ere hiztegi bat baino gehiago.

Euskararen homogeneizazioaren inguruan gogoeta egin eta euskalkiak galbidean direla ondorioztatzen duenik bada. Horrelako lanek herriz herriko hizkerak gal ez daitezten, hauek jasotzeko, gordetzeko eta altxatzeko beharrezko dira, baina baita erabiltzeko tresna gisa ere. Batez ere, horretarako behar dira eta baliatu egin behar dira lanok: «Leitzan etorkizuneko gizaldiak osatuko dituzten hiztunentzat, horietxek moldatu eta itxuratuko baitute hemen erabiliko den hizkera, euskarra».

LEITZA ▶ GIZARTEA

‘Atekabeltz zutik’ dioen logo lehiaketa egiten ari da talde erabiltzailea**Lanak hilaren 26a baino lehen aurkeztu behar dira Ateka Beltzan bertan**

J. ASTIBIA

Ateka beltz zutik esanera agertzea ezinbestekoa da; A3 tamainako orrialde batean egin behar du; edozein marrazketa teknikaz egin izan daiteke. Hauexek dira Ateka Beltzaren logoaren marrazki lehiaketan parte hartzeko bete behar diren baldintzak, Ateka Beltzaren talde erabiltzaileak jakitera eman duenez, hots, antolatzaileek.

Ateka Beltza erabiltzen ari diren taldeak batzorde bat osatu eta «etxeari berehalako erabilpena emateko, gutxiene-

ko egokitzapenak» egiten ari dira, «hainbat auzolan deialdi tarteko direla, esate baterako», zehaztu dutenez, eta «aurreantzean ditugun egitasmoetarako beharrezko ikusi genuen, irudi bat, logo bat izatea Ateka Beltzerako», argitu dute. «Plazaratuko ditugun deialdietan, oharretan, eta sortzeko asmoa dugun materialetan erabiliko dugu logoa», adierazi dute. Horrela, «jendearren parte-hartzea bilatuz», lehiaketa egitea erabaki zuten.

Diotenez, «edozein teknika» egindako irudiak aurkeztu daitezke lehiaketara: «Eskuz,



Logorako edozein teknika erabil daiteke. J. ASTIBIA

ordenagailuz; irudiak, konposizioak; margoak, pinturak, akuarelak, oleoak, tintak... Eta bakoitzari sortzen zaiona, A3 tamainan eginda», argitu dute. Hori bai, «*Ateka beltz zutik* agertu behar du idatzita, proposatutako logoa txertatuta», azaldu dutenez.

Lanak hilaren 26a baino lehen aurkeztu behar dira Ateka

Beltzan bertan; eta egun horretako arratsaldean, 17:00etan, aurkeztutako lanak erakusgai jarriko dituzte. Horiek ikustera joateko deialdia egin dute antolatzaileek: «Bertaratzen direnek bakoitzak bere gustukoa zein duen adierazteko bidea izanen du». Modu horretan egingen omen dute Ateka Beltzako logoaren aukeraketa.

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Aduna. Inaxitoren ametsak bertso antzerkia eskainiko dute Elordi plazako aretoan, 19:30ean. Kultur Astearen baitan.

DEIALDIAK

Zizurkil. Udaltalde 21 Ernioaldeak herri batzarra antolatuta du Tokiko Agenda 21aren bitartez herriaren etorkizunean parte hartzeko. 19:30ean, Atxulondo kultur etxean.

HITZALDIAK

Tolosa. Asier Izagirre mendizale tolosarrak Patagonian zehar ibilaldia azalduko du Oargi mendi elkartearen, 20:00etan. Mendi Hamabostaldiaren baitan.

Villabona. Gipuzkoa Poliklinikako eta Asuncion klinikako Ramon Garate kirol medikua gure bost zentzumenen zainketaz ariko da Biltoki jubilatuta elkartearen, 17:00etan, Helduak eta gizarte zikloaren barruan.

ZINE-KLUBA

Tolosa. Fatih Akin zuzendariaren *Contra la pared* filma. 21:30ean, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5; 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko Ahotsa* magazina: 11:00etan, eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, albisteak, oharrak...; 11:30ean, Ikasleen Nazioarteko Egurenaren inguruokak Ikasle Abertzaleakoko kideekin; 11:45ean, Quark saioa, Elhuyar Fundazioak zientziari eskaintzen dion tartea; 12:15ean, agenda; 12:20ean, Tolosako Babarrunaren Asteaz; 12:30ean, Afrika Elkartasuna taldearen inguruan, Joxean Larrañagarekin; 13:15ean, lehiaketa eta disko eskainiak.
 19:00-21:00. *Tolosaldeko Ahotsa* (errepikapena).
 21:00-22:00. *Gora Euscadi Chistulari* saioa, Matraiki irratiaren eskutik.
 22:00-23:00. *Gau Bero* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Begiak estalirik asmatu behar zuten zer zen usaimena solik erabiliz eta, ondoren, idatzi egin behar zuten. IÑIGO TERRADILLOS



Eta ezindua zu bazina?

TOLOSA ▶ «Ezinduek zer sentazio izan ditzaketen sentitzeko» gaztetxoei zuzenduriko sentsibilizazio jardunaldia izan zen atzo Usabalen



Gurpil-aulkien gainean aritu ziren saskibaloian. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioak antolatuta, Ezinduetako Kirolen III. Astearen murgilduta daude Tolosan. Hala, atzo gaztetxoei zuzenduriko sentsibilizazio jardunaldia egin zuten kirol egokituaren berri izan dezaten. Horretarako, ezinduek egiten dituzten hainbat kirol eta joko mota erakutsi zizkieten 8-12 urte bitarteko Hirukideko, Samaniegoko eta Laskoraingo ikasleei.

Taldetan banaturik froga ugari egin zituzten; begiak estalirik jarri zizkieten ikasleei antolatzaileek, eta jakiak eman

zizkieten dastatu eta usain zitzaten, ondoren antzeman zutena idatziz jartzeko. Beste froga batean, berriz, gurpil-aulkietan jarrita saskibaloian jokatu zuten gaztetxoek, eta beste batean, hitzik egin gabe azaldu behar zieten ikaskideei eta haiek asmatu esan nahi zutena. Hori guztia, «itsuek, gurpil-aulkian ibiltzen direnek edo beste ezintasun batzuk dituztenek zer sentazio izan ditzaketen sentitzeko».

Bestalde, asteari amaiera emateko, ezindu fisikoeek, psikoeek, garun paralisia dutenek, gorrek eta itsuek igandean Usabal kiroldegian hainbat kirolen erakustaldia egingo dute.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Ane Torkemada Aristi.
 Zorionak, printzesa. Familiaren partetik.



ARTOLA
 Juergak utzi pelotan in nahi bak! Ola ebeok! Arraitzak sega oi, amustuta akek ta! Ondo pasa, hire koadrnik.

HITZA, zorion agurren tartea
 HITZaren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 beheko TOLOSA Udaltzeko bulegoa LEITZA
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

UDABERRI

ESBART SANT MARTI

Azaroak 19 Beotibar pilotalekuan
Gaueko 22:30etan Sarrera dohan